

Errespetua

Mirari Martiarena
Iraola

Ez dut gauza berririk esango Altsasuko gazteei buruz. Ez dut esan gabekorik asmatuko. Ez dut ideia berririk argitaratuko. Sentitu eta pentsatu ditudan guztiak medioetan eta sarean elkarbanatu direlako dagoeneko.

Euskal Herrian nahiko sentimendu bateratua izan dugula esango nuke: amorrua eta frustrazioa. Liskarra gertatu zen gau hartatik, epaiketa pasa, sententzia jakin eta aste honetako atxilogetetaraino.

Ustez, garai berrietan bizi gara, baina irudi zaharrak, lehen ikusitakoak eta biziitakoak izan ditugu aste honetan ere. Guardia zibilez betetako kaleak, herribat, berriz ere Altsasu, hartu duten patroi berdeak. Ustez beste garai batzuk, baina usteak erdia ustel oraingoan ere. Garai berrietan ere lehengo lepotik bu-rua.

Ekainaren 16an berriz Iruñean elkar-tuko gara. Altsasuko gazteak, euren fa-miliak, lagunak eta altsasuarrak babes-teko eta elkartasuna adierazteko. Ez

ditugulako sentimendu zaharrak nahi ustezko garai berrietan.

Auzitegi Nazionalaren sententzia errespetuz hartu duenik ere bada. Erres-petua norbaiten aurrean adeitasunez eta onginahiez jokatzera bultzatzen gai-tuen sentimendua bada, argi dago hori esan duenak nor eta zer errespetatzen duen. Baina errespetatu zer preziotan ordea? Beste behin ere justizia ez da de-nentzat berdina. Begiak tapatuta dituen arren, balantza duen aldera bota du oraingoan ere arbola. •

... eta udaberriak badarrai

Koldo Sagasti

Nonbait entzun nuen lore guz-tiak erauzita ere ezin dela uda-berria desagerrarazi. Halaxe da. Nicolas Copernico izan zen, 1543an, bere teoria heliozentrikoan lu-rra eguzkiaren inguruan biraka dabile-la esaten lehendabizikoa. Eta argizagia-ren inguruko bidaia horren emaitza dira urtaroak. Astronomoaren postula-tuak biltzen zituen liburua idazki de-bekatuen zerrenda beltzean sartu zuen orduko elizak. Baina zientzialariaren ideia iraultzaileak galaraziagatik, ia bost mende geroago badugu udabe-rria.

Miguel Servet izan zen, 1546an, men-debalde kristauan lehen aldiz odol zir-kulazioaren teoria azaldu zuena. Garai-ko elizak, baina, sutan erreta hiltzera zigortu zuen bere ausardiagatik. Alfe-rrik saiatu ziren betiereko sugarrez be-re ideiak isilarazten, mendez mende odolak gure zainetatik zirkulatzen ja-rraitu baitu.

Gaurko garaia ere ez dira askoz ho-beak pentsamendu hegemonikotik ateratzen direnentzat. Beti izan dira eta izango dira euren iritziekin mindu behar ez zituzten sentsibilitateak min-tzeagatik zigortutako pentsalari kriti-

koak; direla raperoak, direla aktoreak, direla sare sozialetako iritzigileak. In-kisizioaren atzaparkada pairatu duen azkenetakoa Evaristo Paramos izan da, belaunaldi erreboltari oso baten soinu bandaren egilea. Kontzertu bat bukatu-takoan atzeman zuen guardia zibilak, ustez, irainduta sentitu zirelako agu-raindarraren letrekin. Baina alferrik ari dira, haren kantetako hitzek gure zainetatik zirkulatzen jarraitzen dute-lako. Saiatu daitezke ahots disidente guztiak isilarazten, baina nekez desa-gerraraziko dute disidentzia, udaberria bezain tematia baita. •